

JAR RAI PEN TXOSTENA

2024



EUSKAL
WIKILARIEN
KULTURA ELKARTEA

Aurkibidea

Egitasmoan ditugun gaien jarraipena egiteko sistema.....	3
Artikulu zerrendak hobetzea	3
500.000 artikulu helburu	3
Wikipedia guztiek izan beharreko 1.000 artikuluak	6
Wikipedia guztiek izan beharreko 10.000 artikuluak	8
Emakumeen presentzia	10
Euskal Herriaren ezagutzan sakondu	12
Euskal Herriko historia 100 objektutan	12
Hezkuntza	15
Unibertsitateak	15
Bigarren Hezkuntza	15
Ikas-egoerak.....	16
Beste helburu batzuk	17
LGBTI+ Estilo Gida	17
Komunikazioa	17
Kirola euskaraz	18
Lehiaketak.....	18
Lan teknikoak.....	19
Ikusgela	21
Mundua ulertzeko bideoak.....	21
Bideoak	22
2024 urtean 74 bideo argitaratu ditugu, 8 sailetan banatuta:	22
Produkzioa	33
Berritasunak	34
Komunikazioa.....	35
Sariak	36
Wikipedian presentzia.....	37

Dokumentu honen bidez, Euskal Wikilarien Kultura Elkarteak Eusko Jaurlaritzaren laguntzaren bidez 2024an egindako ekimen nagusiak aipatzen ditugu. 2024-2027 Egitasmoan aipatu dugunez, orain arte egindako dinamika arrakastatsuan sakontzeko helburua dugu, erronka eta zerumuga berriak jarrita. Bide horretan egindakoaren berri ematen dugu hemen.

Egitasmoan ditugun gaien jarraipena egiteko sistema

Aurten egin beharreko lehenengo gauza 2024-2027 Egitasmoaren jarraipena egin ahal izateko sistema martxan jartzea izan da, neurgailu berriak behar ditugulako erronka berriei heltzeko. Lan hau ohiko hezkuntzako eta zabalpen lanarekin bateratu dugu.

Artikulu zerrendak hobetzea

Azken urteotan 12-16 urteko ikasleek behar dituzten artikuluak hobetzen aritu gara, emaitza ikusgarriekin. Azken bi urteotan beste helburu batzuk ere abiatu ditugu, nabarmenena Wikipedia guztiak izan beharreko 1.000 eta 10.000 artikuluak hobetzea, baina ez da hori izan erronka bakarra. Aurten fase berrian sartu gara artikulu sorta batzuen hobekuntzan. Laburrean, gure helburuak izango dira 500.000 artikuluen langa gainditzea, Wikipedia guztiak izan beharreko 1.000 artikuluek 30.000 byte baino gehiago izatea, Wikipedia guztiak izan beharreko 10.000 artikuluetan 10 hizkuntza onenen artean egotea, emakumeen presentzia handitzea biografien herena gaindituz eta Txikipedian corpus esanguratsua osatzea. Orain arte bezala, hezkuntza komunitatearekin zein wikilariekin egingo dugu, erronka zehatzen bidez, edo esfortzu masiboekin.



500.000 artikulu helburu

2024aren hasieran 425.000 artikulu genituen, eta 2027 amaitzerako 500.000 artikulu izateko egunean 50 artikulu inguru sortu behar genituen. Hazkuntza hori organikoa izan daiteke, hau da, wikilariak banaka sortutako artikuluekin, edo bot bidez, beste wikipedia batzuetan egin duten bezala. 2024ean artikulu gehienak eskuz sortutakoak izan dira, nahiz eta boten laguntza izan dugun Alemaniako geografiako artikulu sorta batzuk sortzeko.





Horrela, lerro hauek idazterakoan, urtea hasi zenetik 18.447 artikuluk sortuak beharko lukete, gutxienez, erronka betetzen gaudela ziurtatzeko. Bada, dagoeneko 24.505 artikulu berri sortu ditugu aurten, 68 inguru egunean. Ezinezkoa da hemen artikulu horiek zeintzuk edo nolakoak diren adieraztea, baina ahulgune batzuk bereziki landu ditugula argi dago, txostenean aipatuko dugun bezala: emakumezkoen biografiak nabarmen hazi dira, kirolari buruzko hutsuneak bete ditugu Olinpiar Jokoen aitzakipean eta Europako geografiari buruzko hainbat artikulu ere gehitu ditugu. Lau urterako jarritako erronka hiru urtetan beteko litzateke erritmo horrekin jarraituta.

Esan bezala, artikulu geografikoek ere hazkuntza izan dute. Neurgailu zehatza ez genuen ezarri ikasturte hasieran, baina ekaina erdialdean erradiografia bat egin genuen genituen artikuluak zeintzuk ziren ikusteko eta hutsuneak non zeuden aurkitu ahal izateko. Orain, aukera dugu ekaineko eta abenduko egoera alderatzeko, eta aztertzeko non eman den hazkuntza hori.



Hutsune batzuk betetzen hasi gara jada, tartean AEBn sortu gabe zeuden eremu batzuk, Alemanian falta ziren hiri eta herriak eta Ingalaterrako udalerriak. Faltza zaizkigun hiri eta herri garrantzitsuenak sortzeko proiektua ere abiatu dugu (<https://petscan.wmflabs.org/?psid=28339240>), hizkuntza askotan dauden baina euskaraz falta diren 13.500 artikulua inguru identifikatuz. Horietatik 2.500 inguru jada sortu ditugu, urte amaieran zerranda bereberean 11.000 baino ez direlako geratzen.



Egindako lanari esker euskarak postu bat irabazi du artikulu gehien dituzten Wikipedien artean, eta dagoeneko **33. hizkuntzarik handiena gara**. Aurretik dauden hizkuntzetako batzuk bot bidez artikulu asko sortzen ari badira ere (bereziki, errumaniera), 32. postura azkar ari gara hurbiltzen, eta litekeena da 2027 amaieran, 500.000 artikulu gaindituta, 31. hizkuntzarik handiena izatea, beti ere aurrekoek dituzten emaitzen arabera. Edonola ere, 2025ean postu bat gora egiteko aukera handia dugu, eta 450.000 artikulurekin urtea hasita, gertuago egongo gara ezarritako erronkatik.

Erronka jarraitu:



Wikipedia guztiek izan beharreko 1.000 artikuluak


Aurten wikilarien esfortzua hemen zentratu dugu. Azken lau urteotan zerrenda honetan postu gehien gora egin dituen hizkuntza izan da euskara, 2024aren hasieran 18. posturaino iritsi baikara. Hortik gora gero eta zailagoa da iristea, gainera dauden hizkuntzek oso entziklopedia sendoak baitituzte. Urte hasieran aipatzen genuen 16. postuan amaitzeko aukera zegoela, portuguesaren gainera, baina saiatuko ginela 14. postuan amaitzen. Eta horrela izan da, urrian lortu baikenuen vietnamera eta italiara gainditzea, eta 14. postuan amaitzea. Orain gainean duguna alemana da, potentzia handia Wikipedian, baina baliteke 2025eko hasieran bertan gainditzea.

Hainbat hilabetez euskara izan da zerrenda horretan gehien hazi den hizkuntza (hazkuntza zutabea). Urteko zazpi hilabetetan hizkuntzarik onena izan gara, eta beste hiru hilabetetan 2. onena. Kontuan hartu behar da urria eta azaroan kantonera bultzada handia eman ziola zerrendako postuetan gora egiteari, emaitza ikusgarriekin, baina hor eutsi diogu hazkuntza erritmoari. Urte berriko erronka izango da artikulu ertainak luze bilakatzea, dagoeneko laburrik gabe egon baikaitezke.

Hilabetea	Laburrak	Ertainak	Luzeak	Puntuak	Hazkuntza	Posizioa
Urtarrila	240	274	486	63,44	22.	18
Otsaila	224	275	501	64,81	2.	18
Martxoa	199	280	521	66,76	1.	18
Apirila	174	283	543	68,81	1.	18
Maiatza	155	283	562	70,40	1.	18
Ekaina	147	284	569	71,16	3.	17
Uztaila	126	288	586	72,80	1.	17
Abuztua	108	287	605	74,46	1.	17
Iraila	87	287	626	76,32	1.	16
Urria	63	289	648	78,34	2.	14
Azaroa	47	287	666	79,88	2.	14
Abendua	18	287	695	82,46	1.	14

Ikus daitekeenez, urte hasieran genituen 240 artikulu laburretatik 18 baino ez ziren geratzen abenduaren hasieran egindako gaurkotzean, eta luzeak erdia baino gutxiago izatetik bi heren izatera igaro ziren jada azaroan. Xehetasun gehiago izateko, hurrengo orrialdeko QR kodean ikus daiteke taula, non artikulu bakoitzaren luzera eta garapena zehatz jarraitzen dugun.

Euskarazko Wikipediaren posizioaren eboluzioa Wikipedia guztiek izan beharreko 1.000 artikuluen rankingean 2020-2024 tartean hilabetero egindako neurketa




Erronka jarraitu:



Wikipedia guztiek izan beharreko 10.000 artikulak

Aipatu genuenez, aurten ez gara erronka honetan zentratu, baina lehiaketa eta helburu txikiagoekin saiatuko gara bultzada bat ematen. Urtea hasi genuena baino postu bat gorago amaitu dugu, poloniera gaindituta, eta txekieratik gertu. Urtea polonieratik 1,58 puntura hasi genuen eta 0,55 puntutan gaude euren gainetik. Igoera horretatik zati handi bat ekainean antolatu genuen biografia laburregien lehiaketa izan zen, baita hezkuntzan egindako lana ere, bereziki unibertsitateko ikasleekin.

Ekainaren 1etik 30era bitarte Wikipedia guztiek izan beharreko 10.000 artikuluen artean biografiak aukeratu genituen eta laburrenak (8.000 bytetik beherakoak) hedatzeko proposamena luzatu genuen. Lehiaketari esker 2.655 kb gehitu dira, hau da, ia 139.951 hitz, 2.521 erreferentzia bibliografiko eta 493 irudi berri. Esfertzua handia izan arren, puntuaren hazkuntza ez zen hain nabarmena izan, 10.000 artikuluen zerrenda hobetzea lan izugarria baita. Hala ere, hobekuntza bi grafikotan bildu dugu.




Lehen bi datuak urte amaieran neurtu izan ditugu (hau da, 2022ko abendua eta 2023ko abendua), eta 2024tik aurrera sei hilabetez behin egiten ari gara neurketa. Igoerak jarraitu du etengabe eremu guztietan, baina biografietan ikusten da nola hazkuntza handia izan den, esparru txiki bat izatetik handien artean kokatzeraino. Ekainean egindako lehiaketaren arrakasta horrek pista bat ematen digu hurrengo urteetan jarraitu dezakegun bide bati buruz. Medianan egindako igoera oso nabarmena da. Grafikoan ikusten denez, "Historia" eremua da handiena (artikulu luzeak egitea errazagoa izan ohi da), eta "Gizartea eta gizarte zientziak" eremuak atzean jarraitzen du, baina hazkuntza ona izan du aurten, teknologia edo matematikaren pare geratzeraino. Aurten esparru horietan sakondu dezakegu, parekotasun handiagoa lortu ahal izateko gaien artean.

Neurketa horretaz gain, histograma batean ere bildu dugu eremu bakoitzeko artikuluen tamaina, garapena nolakoa den hobeto ikusi ahal izateko. Hurrengo orrialdeko grafikoan, gero eta ilunagoa izan eremu bat, orduan eta emaitza hobea.

Byte kopuruaren ehunekoa gaiaren arabera

10.000 artikuluen zerrendaren bisualizazioa Euskarazko Wikipedian, 2024ko abendua



Grafiko koloretsu hau interpretatzen zailagoa izan daiteke, informazio asko biltzen duelako. Egin duguna da byte kopuruaren araberako sailkapen bat, lehen hezkuntza programan erabiltzen genituen tartek mantenduz. Wikipedia guztiek izan beharreko 10.000 artikuluen zerrendaren arabera, artikulua bat ertain da 8.000 eta 16.000 byte artean baldin baditu, eta hortik aurrera luzea da. Hala ere, guk luzera gehiago gehitu nahi izan dugu, hobeto ikus dadin zein gaitan ari garen hobeto. Gai bakoitzean dagoen artikulua kopurua desberdina denez, ehunekoak nabarmen alda daitezke eremu batean egindako esfortzuaren arabera. GUZTIRA izeneko atalak erakusten digu nola joan den, denborarekin, egoera hobetzen: gero eta ilunagoa da lerroa. Artikulu horiek (500 bytetik behera) kentzeko erronkarekin batera, berde argiak ere desagertzen joan dira, eta gero eta gehiago dira turkesak, urdina eta moreak (Viridis eskala erabili dugu hemen).

Lehen begiratu batean, argi dago "Giza eta gizarte zientziak" eta "Antropologia, psikologia eta eguneroko bizitza" direla artikulua laburrenak kontzentratzen dituzten eremua, teknologiak jarraituta. Bat dator batezbesteko eta medianaren kalkuluekin, baina hemen grafikoki hobeto ikusten da banaketa.

Bestetik, aipatu beharra dago euskara dela 10.000 artikulua horiek edukitzea lortu duen hiru hizkuntzetako bat, arabiera eta katalanarekin batera. Tarte batez besterak ere lorpen hori bazuen, baina urtea amaitzerako zerrendan egondako aldaketa batzuek eragin dute egin gabeko artikulua agertzea. Euskarazko Wikipedian dagoen komunitateak erronka horri ematen dion garrantziaren lekuko da datua.

Erronka jarraitu:



Emakumeen presentzia


2024aren hasieran euskara emakumeen biografia gehien zituen 26. hizkuntza zen, 17.175 guztira. Gizonezkoak 44.912 ziren. 2027aren amaierarako ezarri genuen erronka 30.000 emakume eta 60.000 gizon inguru edukitzea izan zen, gutxi gorabehera emakumeak biografia guztien herena izatea, gizonezkoen biografien hazkuntza ere gelditu gabe.

2024an nabarmen bete dugu urte honetarako jarrita genuen helburua: 22.712 emakume ditugu. Hau da, urtea hasi zenetik 5.150 emakume gehitu ditugu euskarazko Wikipediara, 3.263 gizon gehitu ditugun tarte berean. Dagoeneko emakumezkoen biografiak %31,98 dira, urte hasieran baino %3,91 gehiago. Eta hori gutxi balitz, hungariera gainditu dugu biografia kopuruan eta dagoeneko 25. hizkuntza gara sailkapenean. Gainera, beste generoetako biografia gehien duen Wikipedietako bat gara.

Emakumeen presentzia handitzeko egindako lanen artean daude beranduago azalduko dugun ikas-egoera baten garapena, bestelako bideetatik landutako Erasmus+ proiektu bat eta hezkuntza mailan HUEZIREkin batera egindako editatoia, martxoan zehar landutakoa. Gure asmoa da aurrera begira hezkuntzan ere erronkari heltzea, eta ikastetxeetan lan egin ahal izatea emakume interesgarrien biografiak sortzen.




Euskarazko Wikipediako biografien generoa denboran zehar
Humaniki proiektuak astero emandako datuetan oinarrituta



Noski, zifra hauek ez lirateke hain nabarmenak izango WikiEmakumeek taldeen lanik gabe. Astero-astero, hainbat wikilari, gehienak emakumezkoak, biltzen dira Durangon zein Oiartzunen eta milaka biografia sortu dituzte jada. EWKEren lanetako bat talde hauek babestea da, baita antzeko eskaerak dauden lekuetan laguntzea taldeak sortzen. Horrela egin genuen 2024ko maiatzean EAEko liburutegien zerbitzuak antolatutako ikastaroan, adibidez, emakumeen biografiak sortzeko proposamen eta adibideekin.


Erronka jarraitu:



Txikipediako corpora

2024an Txikipediara 900 artikulua gehitzeko erronka jarri genuen, eta horrek esan nahi du urtea 7.500 artikulurekin amaitu beharko genukeela. Udan egindako txostenean, dagoeneko 7.250 artikulua zeuden, eta urtea amaitu dugu 7.637 artikulurekin, beraz erronka betetzera heldu gara, 1.000 artikulua berri gehituta. Hala ere, artikulua hauek hazkuntza ausazkoa izan liteke, edozein gairekin, edo bideratua, hau da, corpus bat osatzen. Horretarako ari gara lanean Euskal Herriko Ikastolekin, euren ikasleek Txikipedian gai zehatzak lantzeko aukera dagoelako.

2024aren hasieran berriro ere ikastolak martxan jarri dira artikulua kopuruan koska bat igotzeko, 29 ikastola eta DBH 1-2ko 1.600 ikasle inguru artikulugintzan jarrita. Ikasleak 3-4 laguneko taldeetan antolatu dira, argitaratu beharreko artikulua idazteko, eta guztira 600 bat artikulua egin dituzte. Dagoeneko hirugarren urtea da proiektu hau egiten duguna, eta horrek aukera ematen digu estatistikei begiratzeko:



Ikusten denez, Gipuzkoan izan dugu talde kopururik handiena, baina jarraitu dugu herrialde guztietako ordezkartzarekin. Horrek aukera ematen digu Euskal Herriari buruzko hainbat gai sartzeko, ezagutza lokala ere bultzatzen delako proiektuarekin. Corpora osatzeko proposatutako artikulua eta horietatik egindakoak zerrenda honetan ikus daitezke: <https://eu.wikipedia.org/wiki/Atari:Hezkuntza/Ikastolak/2023-2024>

Bestetik, jarraitu dugu Ikasi Otsorekin egitasmoa bultzatzen. Eñaut Aiarzaguena marrazkilariak hamabostean behin komiki bat argitaratu du Commons-en, eta Txikipedian nabarmendutako artikulua komikiaren arabera ezarri dugu. Horrela, lortu dugu proiektu hau eta Txikipediako edukia hobeto ikustaraztea. 2024/2025 ikasturterako Euskal Herriko historia 100 objektutan egitasmoarekin lotu dugu Ikasi Otsorekin, hiru urtetan 100 gairi buruzko komikiak izateko asmoarekin.



Euskal Herriaren ezagutzan sakondu

Neurgailu zailak dituen eremua izanda, lehenengo urteko erronka izango da horiek sortzea. Lehenengo neurgailu bat eta ekimen bat egin dugu hala ere: Euskal Herriko udalerriak hobetzea. Martxoan egin genuen, 10 egunez, Korrika abian zela probestuz eta "Harro herri" leloa ere erabilia. Ekimena laburra izan zen, baina 234 kb gehitu ziren, 8.461 hitz eta 238 erreferentzia bibliografiko. Halaber, udalerrien egoera zein zen ikusteko baliatu genuen, "[Wikiproiektu:Euskal Herria/Udalerriak](#)" sortuz.


Euskal Herriko udalerrri gehienetan gaztelaniazko edo frantsesezko edizioa luzeagoa da euskarazkoa baino, Nafarroa Garaian izan ezik. Gainera, udalerriz udalerrri hauteskunde informazioa beste artikulua batera ateratzen aritu dira hainbat wikilari hilabete hauetan, eta horrek artikuluen tamaina gehiago laburtu du (eduki historikoa beste leku batera pasa delako).

Byte neurketa ez da arrakastatsua izan, artikuluen hobekuntza gisa wikilari batzuek edukia kendu baitute, artikulua berezituak sortuta. Horren adibide dira sortutako udalerrri bakoitzeko hauteskunde emaitzetako artikulua, artikulua nagusian zegoen edukia mugiarazi duena. Horrela, ehunka artikulua sortu badira ere udalerrietako emaitzekin, aldi berean udalerrri askotan byte gutxiago daude. Araban 6.587 byte baino ez dira gehitu, Bizkaian 80.914, Gipuzkoan 188.340, Nafarroa Garaian 101.589 eta Ipar Euskal Herrian 52.218. Emaiza orokorra, ikusten den bezala, ez da oso nabarmena, nahiz eta edukia gehitzen joan den.

Emaiza hobekia lortu ditugu HUEZIKO "Humanitate Digital Globalak" graduko ikasleekin, 2. mailan Euskal Herriko eskualdeak landu baitituzte, edukia gehituz eta, batez ere, kartografian sakonduz. Bi taldetan (bata 2023/2024 ikasturtean eta, bestea, 2024/2025 ikasturtean) lana egin da aurten, Hego Euskal Herriko hamabi eskualderi ehunka mila byte gehituta.

Euskal Herriko historia 100 objektutan

Erronka jarraitu:



Dударik gabe, proposamen hau da interes handiena piztu duena, bere ikuspegi berritzailearen ondorioz. Egitasmoan aipatu genuen bezala, helburua Euskal Herriko historia museoetan dauden 100 objekturen bidez kontatzea da, eta horretarako hainbat lan abiatu ditugu jada.

Zerrenda osatzea

Erronkarik handiena zerrenda osatzea da, ez baitago zerrenda perfektorik. Zerrenda osatzeko irizpide batzuk ezarri ditugu proiektuaren hasieran:

- Existitzen den objektua bat izan behar da.
- Ahal den heinean, objektua museo edo leku publiko batean egotea.
- Ahal den heinean, objektua ez izatea margolan bat.
- Ahal den heinean, historiako pasarte bati lotutako objektua izatea.
- Ahal den heinean, Euskal Herrian luze zabalean oreka egotea (gertakari historikoak, lurraldea, gaiak...)

Hurrengo pausoa museoekin biltzea izan da, pixkanaka egiten ari garen lana, eta 2024an jada ia osatu duguna. Dagoeneko 50 museo identifikatu ditugu eta horietatik 20rekin bilerak egin ditugu, lehen pausoa eman ahal izateko. Museo bakoitzari eskaera zehatza egin diogu, jada identifikatuta genituen pieza batzuekin, baina euren

esku utzi dugu beste batzuk proposatzea. Eta museoek proposatutako zerrendarekin eztabaida zabala ireki dugu, bai Wikipediako orrialdean bertan, baita EHUko eta museoetako beste aditu batzuekin ere. Helburua zerrenda orekatua egitea da. Zerrenda hemen ari gara eztabaidatzen eta osatzen: https://eu.wikipedia.org/wiki/Atari_eztabaida:Hezkuntza/Euskal_Herriko_historia_100_objektutan/Parte_hartu

Museoei dagokionez, hauek bisitatu ditugu:

Arabian: Arabako Arkeologia Museoa, Arabako Arte Ederren Museoa, Arabako Arte Sakratuaren Museoa, Arma Museoa eta Fournier Museoa.

Bizkaian: Bakearen Museoa, Bizkaiko Arkeologia Museoa, Industria Ondare Higigarriaren Museoa eta Meatzaritzaren Museoa.

Gipuzkoan: Albaola, Armagintzaren Museoa, Balenciaga Museoa, Burdinbidearen Euskal Museoa, Chillida Leku, Makina Erramintaren Museoa, San Telmo Museoa, Soinuenea eta Zarauzko Nekropolia.

Nafarroan: Almadiaren Museoa, Aralarko San Migel, Karlismoaren Museoa, Legardako basiliza, Nafarroako Museo Etnologiko eta Inmateriala, Nafarroako Museoa, Oteiza Museoa, Peru-Harri eta Zugarramurdiko Sorginkeriaren Museoa.

Ipar Euskal Herriko museo bakar batekin egin dugu harremana, Baionako Euskal Museoa, baina oraindik ez dugu lortu proiektuarekin aurrera egitea bertan.

Munduan zehar dauden beste batzuk ere gehitu ditugu bilaketara: Frantziako Liburutegi Nazionala, Venezuelako Gipuzkoako Etxea, Italiako Il Gesù eliza edo Madrilgo Arkeologia Museo Nazionale, besteak beste.

Denbora-lerroa | aldatu iturburu kodea |



Gida bisuala | aldatu iturburu kodea |

Historiaurrea | aldatu iturburu kodea |

 <p>Abauntzeko mapa</p> <p>🕒 K.a. 9815</p> <p>📍 Nafarroako Museoa</p> <p>Ezagutzen den maparik zaharrena.</p>	 <p>Longarreko hipogeoko gizon hezurra eta gezia</p> <p>🕒 K.a. 2500</p> <p>📍 Nafarroako Museoa</p>	 <p>Soalarko iruinaria</p> <p>🕒 K.a. 1500-3500</p> <p>📍 Nafarroako Museoa</p> <p>Monumentu megalitiko antropomorfoa.</p>	 <p>Axtrokiko ontziak</p> <p>🕒 K.a. VII. mendea</p> <p>📍 Espainiako Arkeologia Museo Nazionale</p> <p>Brontze Aro Amalerako urrezko bi ontzi</p>
---	--	---	--

Wikipediako orrialdea osatzea

Wikipedian proiektua jarraitzeko orrialdea osatu dugu, eta diseinu aldetik aukerak aztertzen aritu gara. Azkenean, Finlandian garatutako AvoinGlam diseinuaren alde egin dugu, eta hori moldatu dugu gure proiektuan aritu ahal izateko. Aurreko orrialdean ikus daiteke diseinuak nolako emaitzak ematen dituen.

Orrialdeak, momentuz, bi eskema ditu: denbora lerro gisa aurkeztekoa lehenengo, eta kromo sorta gisa aurkeztekoa bigarrenkoz. Proiektua aurrera joan ahala, fitxa hauek betetzen joango gara.

Argazkien igoera kudeatzea

Objektuen argazkien igoera antolatzea eta kudeatzea proiektuaren lehen zailtasun nabarmena izaten ari da, museo bakoitzarekin landu beharreko baimenak direla eta. Bereziki, Bizkaia eta Arabako Foru Aldundiaren esku dauden museokin izaten ari gara arazo gehien, lizentzien eta eskubideen ondorioz. Museo batzuetara gu joan gara argazkiak egitera, eta atak ireki dizkigute, baina ez da soluziorik onena.

Prozesua errazteko, kontratu moduko bat antolatu dugu, museo bakoitzak sinatu behar duen dokumentua, eta Wikimedia Commonsera igotzerakoan atxikituta geratzen dena. Horrela, pieza bakoitzaren egiletzak museoan jarraitzen du, eta proiektuan ikusgarritasuna ematen diogu euren kalitate handiko argazkiei. Era berean, 3D errepresentazioen inguruan lanean ari gara, MuseoTik plataformara igo direnak lortzeko, bereziki. Amaitzerakoan, objektu bakoitzak bere kategoria izango du Wikimedia Commonsen, eta aukera handiagoak egongo dira proiektuaren atal multimedia lantzeko.

Multimedia proposamenak eta podcasta

Proiektuan multimedia proposamen bat egiten genuen, Podcast baten formatuan izan zitekeena. Horretarako Euskadi Irratiarekin bildu gara, eta proiektua interesgarria egiten bazitzaien ere, ez dugu lortu adostea lizentzien arazoa. Irrati publikoak arazoak ditu edukia lizentzia libreekin uzteko, enprekin egiten dituen kontratuak direla eta. Tarte bat eskaini ostean, bigarren bide bati ekin diogu, Berriarekin batera.

Berriak begi onez ikusi du elkarrekin podcast hori egitea, eta beste edukiekin ere lanketa idatzia egin daiteke, baita beranduago azalduko ditugun komikiak argitaratzeko aukera ere. Podcasta egiteko, ordea, idazle baten beharra aipatu dute, eta horregatik bildu gara urtea amaitu aurretik Harkaitz Canorekin, berak proposamen bat egin dezan. Oraindik itxi gabe dagoen kolaborazioa da, baina Wikimedia Fundazioaren diru laguntzaren bidez kudeatuko dugu.

Gure asmoa da objektu bakoitzaren bost bat minutuko saio bat egitea, audioz eta idatziz. Momentuz egindako proposamenean, ahots bat baino gehiago egongo lirateke, eta objektua bera, nola heldu garen horraino, eta objektuaren gertakari historikoa ikusiko genuke, zertzeladen bidez. Aurrera egitekotan, 2025/2026 ikasturtean izango genituzke lehenengo audioak.

Txikipedia

Txikipedian aritzeko proposamena luzatu genuen ere, eta horretan Ikasi Otsorekin proiektua berbideratu nahi genuen, 100 objektu hauen inguruko komikiak egin daitezen, gero eskoletan ere erabilgarri izango direnak. Dagoeneko hitzartu dugu Eñaut Aiertzaguenarekin komikien ekoizpena. Batzuek orrialde bakarra izango dute, orain arte bezala, baina beste batzuek bi izango dituzte, gaiaren interesaren arabera. Horrela, 150 orrialde inguru argitaratzeko aukera izango genuke, gero formatu fisikoan ere eskaini daitezkeenak. Podcastaren gidioen aferak atzeratu du komikiena, baina ikasturte honetan, eta urte berriarekin, komikiak egiten hasteko moduan egongo gara.

Hezkuntzan lanean

Unibertsitateak

2024an jarraitu dugu, noski, unibertsitateekin elkarlanean. Orain dela hainbat urte abiatu genuen Hezkuntza Programak oinarri eta sustrai sendoak ditu jadanik eta ikasturte berri bakoitzean irakasle eta ikasleekin egiten dugun lanketak fruituak ematen jarraitzen du. Proiektu honen abiapuntua euskarazko Wikipedian “Kalitatezko 2.000 artikulua 12-16 urteko ikasleentzat” idaztea bazen ere, lanketa garatzen joan ahala, naturalki eremu zabalagoetara ere hedatzen joan da proiektua eta askotarikoak izaten dira ikasleek sortzen dituzten artikulua.

Hainbat ikasturtetan zehar ibili dugun bide bat denez, dagoeneko baditugu urtero errepikatzen diren bidelagun finkoak eta, hortaz, hainbat irakasleek urtero txertatzen dute Wikipediako praktika euren ikasgeletan. Bidean aurrera egin ahala ate berriak jotzen ere jarraitzen dugu, ikasgai eta irakasle berriekin lankidetzak lortu asmoz, oraindik eta eremu zabalagoetara iristeko helburuz.

2023-2024 ikasturteko bigarren lauhilekoan eta 2024-2025 ikasturteko lehenengoan hauek izan dira egindakoak:

- Guztira 38 ikasgaitan egon gara 2024an. EHU izan da, berriro ere, parte-hartzaile gehien izan dituen, 28 ikasgairekin. Nafarroan dugun lankidetzari esker, abiatu dugu NUPEkin akordio berria, eta aukera izan dugu sei ikasgaitan egoteko. MUn bitan egon gara, eta Deustun eta UEUn bana egin dugu.
- 725 ikasle baino gehiagok hartu dute parte, 548 kontu sortuz eta erregistratuz. Gutxienez 640 artikulua landu dituzte, baina ziurrenik horiek baino gehiago izango dira, Txikipedian egindako lanketa ez baita kontuan hartzen jarraipena egiteko garaian. Artikulu guztien artean, 298 berriak izan dira, baina Txikipediako kontuan izanda, 400 inguru izan daitezke sortutakoak. Guztira 5.081 erreferentzia bibliografiko gehitu dituzte eta 5.400.000 karaktere baino gehiago (750.000 hitz inguru izango dena). Esan bezala, Txikipedia ez da kontuan hartzen.
- Gaien aniztasuna handia izan da, zientziaren filosofiatik konstituzio-zuzenbidera, eta natur zientzien didaktikatik Euskal Herriko eskualdetara.
- Ikerketan ere aritu gara, Natur Zientzien didaktikan aritzeko errubrika bat landu dugu, Informatika Fakultateko ikasleekin datu-baseak Wikidatarekin parekatzeko lana egin dugu eta Bigarren Hezkuntzako masterrean aritu gara hezkuntza eta Wikipedia lotzeko proiektuak azaltzen.

Bigarren Hezkuntza

Bigarren Hezkuntzan sakontzen jarraitu dugu aurten, batez ere ondoren azalduko ditugun ikas-egoeren bidez. Lehen azaldu dugun bezala, Euskal Herriko Ikastolekin aritu gara Txikipedia hobetzen, modu masiboan. Igoera horri esker, ehunka artikulua berri sortu dira, baina, garrantzitsuena, 30 ikastola inguruk hartu dute parte proiektuan. Hurrengo urtean berriro ariketa egiteko lana ere egin dugu urtearen amaieran, gai berriak bilatu eta antolatuz, eta Ikastolen Elkartearekin proiektua berriro adostuz.

Erasmus+ proiektuari esker Bigarren Hezkuntzan genero-oreka lantzeko egitasmoa ere landu dugu. Luberri BHIrekin batera egindako proiektu horretan, Frisia eta Irlandako ikasleekin aritu gara. Egitasmoa aurten amaitu da, eta materiala eskuragarri dago jada nahi duen oroientzat (irudia ikusgai hurrengo orrialdean).

Han-hemenka beste aurkezpen eta trebakuntzak ere egin ditugu urte honetan, adibidez Tolosako Herrikiden edo Gasteizko IRALEko irakasleekin batera. Eta Ikusgela proiekturako Bigarren Hezkuntzako irakasleekin aritu gara, literaturan, filosofian edo euskara ikasgaietan, adibidez.



Ikas-egoerak

Euskal Wikilarien Kultura Elkarteak 2017tik hezkuntza eta Wikipedia bezalako ezagutza libreko proiektuak batzeko lanean dihardu. Urte horietan Lehen zein Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan egin daitezkeen proiektuen inguruko dokumentazio oparoa bildu dugu, baina ez dugu lortu sistematizatzea lan hori eta irakasleei egituraturatutako proiektu gisa azaltzea. Aurten ikas-egoerak sortzea proposatu dugu, irakasleek Wikimedia proiektuetan zein ezagutza libreko beste batzuetan ikasleekin lan egin dezaten.

2024an bi ikas-egoera sortzeko helburua jarri genuen, HUHEZIKo ikerlarien eta Talaios Kooperatibako adituen laguntzarekin, 2024/2025ean probatzeko prest egongo direnak. Lehen bi ikas-egoerak emakumeen presentziari buruzkoak eta gelan ditugun migratzaileen kulturari buruzkoak izan dira, eta dagoeneko prest dira probatu ahal izateko.

Ikas-egoera bakoitzak 12 ordu inguruko proposamena du, egin daitezkeen ariketa, errubrika eta material osagarriarekin batera. Horietako batzuk egiteko laguntza materiala osatu dugu, eta sarean eskuragarri jarri ditugu, irakasleek modu errazean aurki ditzaten.

Hala ere, arazoak izan ditugu ikas-egoera hauek praktikan jartzeko. Ikastetxekin egin beharreko kontaktuak huts egin du, eta ez dugu lortu boluntariorik hasteko. HUHEZIK egin beharreko lana zen hau, baina ezezko ugari jaso dituzte, proiektu osoa konpromiso batean jarrita. 2025ean beste hiru ikas-egoera izango ditugu prest, eta bostak aldi berean probatzea ezinezkoa izan daiteke. Hala izanez gero, begiratuko dugu zein modu dugun ikastetxeetara heltzeko, edo probatzearen parte bertan behera utzi beharko dugu, diru-irteera nabarmena baita, eta emaitzarik ez duelako ematen.

Ikas-egoerak | a15Mu #artikulu kodoa |



Erronka jarraitu:



Beste helburu batzuk

Orain arte helburu oso zehatzak ezarri ditugu, baina badago aukera beste batzuei ere heltzeko. Hemen aipatzen ditugu adibide batzuk.

LGBTI+ Estilo Gida

Wikipediako artikuluak LGBTI+ ikuspuntu batetik egokiak edo zuzenak direla ziurtatzeko proiektu bat jarri dugu martxan komunitate horretako kideekin elkarlanean. Uste dugu garrantzitsua dela gaur egungo errealitatean esanguratsua diren hainbat kontzeptu Wikipedian ondo jasota agertzea, eta horretaz gain interesgarria izan daitekeela artikuluak idazterakoan kontuan hartzeko Estilo Gida moduko bat sortzea, LGBTI+ komunitateko pertsonen biografiak idazterakoan informazioa modu zuzenean ematen dela ziurtatzeko, adibidez.



Zentzu honetan, 2024an zehar EHGAMeko kideekin elkarlanean aritu gara gida honen lehen zirriborroa idazteko. Ekainaren 8an jardunaldi ireki bat egin genuen, zirriborroa eztabaidatu eta ekarpenak jasotzeko. Horretaz gain, bertaratu ezin zutenei ere eskaini genien ekarpen horiek beste modu batean egiteko aukera. Fase honetan jasotakoarekin gidaren zirriborroa berriz landu eta osatuko dugu 2024ren bigarren erdian eta 2025aren hasieran. Asmoa da bigarren zirriborro osatuago hau LGBTI+ komunitateko hainbat eragileri aurkeztea eta horren ondoren azken emaitza euskarazko Wikipediako komunitatean argitaratzea, onespena jaso dezan.

Komunikazioa

Egiten dugun lana komunikatzea, zein euskararen presentzia sarean handitzea gure eguneroko egitekoaren parte dira. Prentsako lanaz gain, sare sozialen kudeaketa egiten dugu, oraintxe hiru kanalen bidez: Twitter, Mastodon eta Facebook. Hiru kanal horietan egunero sei-zazpi eduki zabaltzen ditugu, tartean euskarazko Wikipediaren hazkuntzari lotutakoak. Hala ere, eguneroko jarduera euskarazko edukiak sortzera dago bideratuta. Lana egiteko Buffer plataforma erabiltzen dugu, egunero emango diren mezuen plangintza aurrez egiteko aukera ematen diguna.

Lan hau garrantzitsua dela uste dugu, baina bere eragina asko jaitsi da azken urtean, batez ere Twitter/X sare sozialean egondako aldaketen ondorioz: ordaindu gabeko kontuen ikusgarritasuna jaitsi da, eta algoritmoak polemika sortzen duten kontuak indartzen ditu, hezkuntza-edukia sortzen dutenen gainetik. Euskararen presentzia ziurtatzea zailagoa da testuinguru berri horretan. Ikusita egiten den lanak ez duela emaitza onik ematen, hurrengo urteari begira sare hauetan dugun presentzia berplanteatzen ari gara.

Kirola euskaraz

Iaz eskaria jaso genuen euskarazko Wikipedian kirolari buruzko edukia hobetzeko, eta horretan jardun genuen wikilariok, UPV/EHUko ikasleen laguntzarekin. Lan horri esker, gutxienez olinpiar kirolak direnen edukia asko hobetu zen, eta baldintza onak sortu ziren 2024ko Udako Olinpiar Jokoen jarraipena egiteko. Aurreko olinpiar jokoetan sortutako azpiegitura baliatuz, aurten aurrera pauso nabarmena eman dugu: Olinpiar Jokoetako proba guztiekin artikulua bana sortzea. Erronka horri eusteko azpiegitura bagenuen ere, aurten beste hainbat kirolletako txantiloak sortu behar izan ditugu, eta une honetan euskaraz Udako Olinpiar Jokoetako kirol guztietarako txantiloak moldatuak ditu.

Erronkari eusteko Wikiproiektu:Olinpiar Jokoak moldatu genuen, jarraipena egiteko aukera ematen diguna. Hiru erronka ezarri genituen hor: Parisko jokoen informazio orokorra eskaintzea, proba guztietarako artikulua egitea eta domina olinpikoa irabazten zutenen artikulua egitea. Horrela, kirolak zein kirolariak izango genituzke, aldi berean euskarazko kirol informazioa hobetuz, eta kirol erreferente izan daitezkeen pertsonak euskaraz eskainiz

Kirolaren arabera [a/datu | aldatu iturburu kidea]

- Kirol bakoitzeko laburpena egitea, dominekin eta irabazleekin.
- Proba bakoitzerako artikulua bana sortzea eta emaitzekin osatzea.

129 / 329

- | | | | |
|---------------|--------------|----------------------|------------------|
| Arkularitza | Borroka | Igeriketa | Skateboardinga |
| Arrauketa | Boxeo | Igeriketa artistikoa | Surfa |
| Atletismoa | Eskrima | Jauziak | Taekwondo |
| Badmintona | Eskubaloia | Judoa | Tenisa |
| Breakdance | Futbola | Kanoa | Tiroa |
| Bela | Gimnastika | Kirol eskalada | Triatloia |
| Belar-hockeya | Gofa | Mahai-tenisa | Tximindularitza |
| Boletbola | Halterofilia | Pentatloia modernoa | Waterpolo |
| | Hipika | Saskibaloia | Zazpiko errugbia |

Lehiaketak

Aurten hiru edizio lehiaketa egin ditugu euskarazko Wikipedian, hobetu nahi genituen eremu batzuetan eragiteko. Orohar, lehiaketek jarraitzen dute ondo funtzionatzen, dosifikatuz gero. Parte-hartzaileak maiz izaten dira berberak, eta hobeto da ez erretzea edukia gehitzeko modua.

Euskal kultura

Ikusgelako Euskal Kulturako denboraldi berriarekin bat, bertan agertzen ziren gaiak hobetzeko lehiaketa antolatu genuen, kontuan hartuta landu gabeko gaiak zirela. Zerrenda osatzeaz gain, artikulua askoren inguruko informazioa ere bilatu behar zen, ez delako itzulpen bidez egin daitezkeen lan bat.

Arrakastatsua izan zen, jende berria batu zelako, eta sarean eman zigulako aukera Ikusgelan egiten genuen lana nola osagarritzen genuen erakusteko. 18 pertsonak eman zuten izena lehiaketan, eta 57 artikulua berri sortu ziren. Guztira 562 Kb gehitu ziren, 14.999 hitz direnak, eta 1.261 erreferentzia bibliografiko, oso kopuru garrantzitsua euskal kulturako gaiak ikustarazteko. Irudietan, hala ere, eskas ibili ginen, eta soilik 40 irudi berri gehitzea lortu genuen.

Biografia laburregiak

Wikipedia guztiek izan beharreko 10.000 artikuluen zerrendan 2.000 biografia inguru daude, eta horietako asko oso laburrak ziren euskarazko Wikipedian. Guztiak ditugun hizkuntzetako bat izanda, horiek hobetzeko

lanean jarri gara lehiaketa baten bidez. 25 wikilarik hartu zuten parte, tartean WikiEmakumeok taldeko hainbat, zerrendako emakumeak hobetzeko asmotan. 2.655 Kb gehitu ziren, 139.951 hitz. Gainera, 2.521 erreferentzia bibliografiko berri eta 493 irudi gehitu zitzaizkien biografia horiei. Aurretik aipatu dugunez, horrek aukera eman du biografien eremuan igoera handia izateko. 2025ean beste arlo bat lantzeko aukera aurreikusten dugu, arrakasta ikusita.


Labur eta garrantzitsu

Labur eta garrantzitsu izeneko lehiaketak logika berbera jarraitu zuen, zerrendako 600 artikulua laburren hartuta, eremu guztietakoak. 21 wikilarik hartu zuten parte, 1.360 Kb gehitu zituzten eta 85.952 hitz. Ez zen izan biografiena bezain arrakastatsua, baina lortu genuen artikulurik laburren hedatzea, eta hori zen helburua. 1.291 erreferentzia bibliografiko berri eta 485 irudi gehitu ziren, beraz, gehituta hitzez gain, kalitatea zabaltzen duten beste ezaugarri horiek ere nabarmen hazi ziren.

Lan teknikoak

Azalaren eraberritzea


★ Aste honetan nabarmen [artikulua bozkatu]




Poliomielitis

Poliomielitis edo polio, laburtikuz, *polio* berriak eragindako *gaitasun infektiboa* bat da. Kasuen % 0,5ean, gutxi gorabehera, *musku*-ahulezia sortzen du, mugitzeko ezintasuna dakarrena. Polioaren aurkako berriarekin prebentzio duteke gaitasuna; hala ere, dosi ugari behar dira eraginkor izan dadin. Behin infektatuta, ez dago tratamendu espezifikorik. Tiarzari esker, ia mundu osoan desagertutako gaitasuna da.

Aurreko asteetan...



Nafarroako Erresumaren inbasioa (1199-1200)



Che Guevara

Wikipediako orrialderik bisitatuena bere azala da, baina hizkuntza gehienetan diseinu zaharkitua duen lekua da. Euskarazko Wikipediak diseinua berritu zuen orain urte batzuk, baina aurreko guztiz eraberritu dugu, itxura garbiagoa eta zuzenagoa emateko helburuarekin.

Wikimedia Fundazioak antolatzen duen Wikimedia Hackathon erabili genuen aurrerapauso hori emateko, bertako teknikariek batera hainbat ezaugarri interaktibo dituen lehen azala sortuz. Gertuko artikulua eta aurreko eguneko irakurrienak ikusteaz gain, albisteetarako lekua du, eta askoz grafikoagoa da beste edozein azal baino.

Wikifunctions

Wikifunctions Wikimedia Fundazioaren proiektu berria da, funtzio informatikoen biltegi handi bat, ondoren operazioak egiteko baliatuko dena. Bere helburua etorkizunean sortuko den Abstract Wikipediaren azpiegitura sortzea da, munduko edozein hizkuntzatan milioika artikulua eskaintzeko aukera emango duena, funtzio horien bidez itzulpena eskainiz. Teknikoki azaltzeko konplexua da, proiektua hasi berria delako, baina garrantzitsua da euskarak hor ere bere lekua izatea.

Horretarako, aurreko urteetan egin genuen lexemak euskaraz igotzeko proiektua oso baliagarria izango da, baina euskara matematikoki modelatzeko lana ere egin behar da. Bada, aurten lehen pausoak eman ditugu, plataforma ezagutzuz eta oinarritzko funtzio batzuk igota. EHUko Informatika saileko irakasle batzuekin ere kontaktuan jarri gara, ikasleekin proiektua elikatzeko aukera aztertzeko.

Hala ere, emaitzarik onena NUPEkin lortu dugu, bertan egin baitugu, Nafarroako Gobernuak ematen digun diru-laguntza baliatuta, Pythoneko ikasleekin euskara Wikifunctionsera ekartzeko lehen saiakera nabarmena. Emaitza interesgarria izan da, ez hainbeste bere zuzentasunarengatik, baizik eta lehenengo aldia izan delako hizkuntza baten inguruko lanketa egiten dela Wikifunctionsen ikasleekin. Beste komunitate batzuek ere interesa dute proiektuaren nondik norakoak ezagutzeko.



Gure helburuen artean sartuko dugu hurrengo ikasturtean euskarazko funtzioen kopurua handitzea eta egingakoa hobetzea, gutxienez euskarazko deklinabidea eta, ahal izatekotan, aditz sistema, modelatzeko.

VideoWiki

VideoWiki Wikipedia irisgarriago egiteko helburua duen proiektua da, bideo kolaboratiboak eginez geruza bisual bat gehituz. Ikusgela proiektua baino sinpleagoa izanda ere, etorkizunean «giza ezagutza guztiaren batuketa» testura bakarrik ez mugatzea da bere helburua. Wiki Project Med Fundazioak garatu duen proiektua da, eta euskara izan da bera erabiltzen lehen hizkuntzetako bat.

VideoWikik aukera ematen die erabiltzaileei argitaratutako bideo bat elkarlanean editatzeko/berrargitaratzeko. Ezaugarri hori bereziki garrantzitsua da, informazioa etengabe zuzendu, eguneratu eta hobetu baitezake banatutako komunitate boluntario batek.

Euskaraz erabili ahal izateko, lankidetzan abiatu genuen orain bi urte Wiki Project Med Fundazioarekin, beharrezko edukiak sarean erabiltzeko. Aurten aukera izan dugu jada proba egiteko, baina euskarazko ahotsa Googlek sortutakoa zen, eta kalitate eskasa zuen. Horregatik, Elhuyar Fundazioarekin batera euren TTS teknologia txertatzea lortu dugu, bideoetan erabiltzeko. Hasi berria den teknologia guztiz euskaratzen dugunean eskuragarri egongo da eskolatan erabiltzeko, ikasleentzat bideo laburrak egiteko aukera berri bat.



Ikusgela

Mundua ulertzeko bideoak

Euskarazko bideo pedagogiko libreen atariak 2022an hasi zuen bidea. Irailean bete dira bi urte proiektua aurkeztu zela, eta, dagoeneko, katalogo sendoa dauka. Azken hamabi hilabeteotan 68 bideo aurkeztu ditugu, aurrez zeuden beste 49ekin batera, 120 bideoen langa pasa dugu.

Aurrez martxan zeuden filosofia, ekonomia, euskal literatura, erronka digitalak, ingurumena eta zortziko txikian sailez gain, literatura unibertsala jorratzen duen bilduma aurkeztu dugu udaberrian, eta udazkenean su txikiko lana eskatu duen sail bat aurkeztu dugu: historia ulertzeko bideoak. Denera zortzi bilduma ditugu orain.

Katalogo sendo batekin jende gehiagorengana heltzeko aukera izango genuela aurreikusi genuen. Orain une horretan gaude, pauso haundiagoak emateko ametsetan, hezkuntza komunitatean ezagunagoak izateko eta euskarazko sareko edukietan ere, erreferentzialtasuna lortzeko. Badaude bide horretan goazela esaten diguten datuak ere: aurtengo Rikardo Arregi Sarietako Komunikazio saria eman digute. Aitortza horrez gain, udazkeneko bisitak asko hazi dira: esaterako, Euskararen Nazioarteko Egunean, euskal kulturako bideoek 500 bisita izan zituzten goizeko 8etatik 10etara bitartean. 500 ikasgelatan jarri ziren bideoak?

Zabalpena da, bilduma eder bat sortzen ari garen honetan, indartu eta biderkatu beharrekoa. Gaur-gaurkoz juxtuko indarra dugu horretan ganoraz jartzeko, indar guztiak sortze prozesuan jarri ditugu, baina saiatu beharra dago. Buletin bat aurkeztu dugu aurten, irakasleek sortzen ditugun bideoen berri izateko; eta komunikazio ekintza indartsu moduan, hezkuntza zentroetara bideoen aurkezpen posterrak helarazi ditugu. DA!n bi aurkezpen egin ditugu, eta harrera beroa izan da.

Euskarazko Wikipediako Hezkuntza Proiektuari ikus-entzunezkoen geruza gehitzen dio Ikusgelak, eta bisita kuantitatiboek eta irakasle eta ikasleek esaten digutena kontuan hartuta, merezi du proiektua sendotu eta zabaltzeak.



















Euskarazko ikus-entzunezko kontsumitzaileak hezi nahi baditugu, erronkarik ez zaigu faltako.



Bideoak

2024 urtean 74 bideo argitaratu ditugu, 8 sailetan banatuta:

Historia



Bideoa	Gaia	Wikipedia	YouTube
 <p>Neolitoa</p>	01 Neolitoa		
 <p>Frantziako Iraultza</p>	02 Frantziako iraultza		
 <p>Erromatarrek euskal lurretan</p>	03 Erromatarrek euskal lurretan		
 <p>Euskal baleazaleak</p>	04 Euskal baleazaleak		
 <p>Iruñeko Erresuma</p>	05 Iruñeko Erresuma		
 <p>Berlingo Harresia</p>	06 Berlingo Harresia		

Euskal kultura

Bideoa	Gaia	Wikipedia	YouTube
 <p>Euskarazko prentsa</p>	01 Euskarazko prentsa		
 <p>Euskal zinema</p>	02 Euskal zinema		
 <p>Lehen Euskal Pizkundea</p>	03 Lehen Euskal Pizkundea		
 <p>Bigarren Euskal Pizkundea</p>	04 Bigarren Euskal Pizkundea		
 <p>Euskaren debekua</p>	05 Euskararen debekua		
 <p>Euskara ingurune digitalean</p>	06 Euskara ingurune digitalean		
 <p>Euskal hezkuntza</p>	07 Euskal hezkuntza		













 <p>Euskal arte plastikoa</p>	08 Euskal arte plastikoa		
 <p>Euskara batua</p>	09 Euskara batua		
 <p>Euskal antzerkigintza</p>	10 Euskal antzerkigintza		

Ekonomia







Bideoa	Gaia	Wikipedia	YouTube
 <p>Autonomoen lege berria</p>	01 Autonomoen lege berria		
 <p>Gutxieneko Soldata</p>	02 Gutxieneko soldata		
 <p>Kooperatibak</p>	03 Kooperatibak		
 <p>Merkatu ikerketa</p>	04 Merkatu ikerketa		

 <p>Kontzertu ekonomikoa</p>	05 Kontzertu ekonomikoa		
 <p>Errenta aitortpena</p>	06 Errenta aitortpena		
 <p>Ekonomia sozial eraldatzailea</p>	07 Ekonomia Sozial Eraldatzailea		
 <p>Gizarte erantzukizuna</p>	08 Gizarte erantzukizuna		
 <p>Paradisu fiskalak</p>	09 Paradisu fiskalak		
 <p>Hipotekak</p>	10 Hipotekak		

Filosofia

Bideoa	Gaia	Wikipedia	YouTube
	01 Judith Butler		
	02 Byung-Chul Han		
	03 Miguel Unamuno		
	04 Ludwig Wittgenstein		

Literatura unibertsala

Bideoa	Gaia	Wikipedia	YouTube
	01 Safo		
	02 Cervantes		

	03 Homero		
	04 Dante		

Erronka digitalak





















Bideoa	Gaia	Wikipedia	YouTube
	01 Identitate digitala		
	02 Detox digitala		
	03 Artea eta AA		
	04 Fake News		
	05 Euskararen mugak sarean		





















	06 Interneten funtzionamendua		
	07 Ordenagailu kuantikoa		

















Ingurumena

Bideoa	Gaia	Wikipedia	YouTube
	01 Larraketa berreratzailea		
	02 Lurzoruaren osasuna		
	03 Berotegi efektua abeltzaintzan		
	04 Zehaztasuneko nekazaritza		
	05 Hondakinak eta bioekonomia zirkularra		

Zortziko txikian

Bideoa	Wikipedia	Youtube
01 Eduardo Txillida		
02 Eraztunen Jauna		
03 Tupustarriak		
04 Karraskariak		
05 Euskal izena duten zortzi objektu astronomiko		
06 Zortzi aita ez hain santu		
07 Ilargia		
08 Bisurtea		
09 Korrika		
10 Errege Bardea		

Bideoa	Wikipedia	Youtube
11 Eusko Jaurlaritzako lehendakariak		
12 1766ko matxinada		
13 Zortzi datu geografiko bitxi		
14 Patata		
15 Titiak		
16 Nafarroako Jota		
17 Altzoko Erraldoia		
18 EuskarAbentura		
19 Euskal herritarrak Frantziako Tourrean		
20 Olinpiar Jokoak		

Bideoa	Wikipedia	Youtube
21 Euskal Herriko piratak		
22 Bilboko Aste Nagusia		
23 Donostiako Zinemaldia		
24 Skateboard		
25 Arantzazuko santutegia		
26 Everest		
27 Mari Domingi		
28 Euskal uharteak		

Kronograma

#	Data	Saila	Bideoa
1	01/09	Ekonomia	Autonomoen Lege Berria
2	01/10	Zortziko txikian	Txillida
3	01/16	Ingurumena	Larraketa berreratzailea
4	01/18	Zortziko txikian	Eraztunen Jauna
5	01/23	Ekonomia	Soldatak

#	Data	Saila	Bideoa
6	01/25	Zortziko txikian	Tupustarriak
7	01/30	Ingurumena	Lurzoruaren osasuna
8	02/01	Zortziko txikian	Karraskariak
9	02/06	Ekonomia	Nola funtzionatzen du kooperatiba batek?
10	02/08	Zortziko txikian	Euskal izena duten objektu astronomikoak
11	02/13	Ingurumena	Berotegi efektua
12	02/15	Zortziko txikian	Ilargia
13	02/20	Ekonomia	Merkatu ikerketa
14	02/22	Zortziko txikian	Zortzi aita ez hain santu
15	02/27	Ingurumena	Zehaztasuneko nekazaritza
16	02/29	Zortziko txikian	Bisurtea
17	03/05	Ekonomia	Kontzertu Ekonomikoa
18	03/12	Ingurumena	Hondakinak eta bioekonomia zirkularra
19	03/14	Zortziko txikian	Korrika
20	03/19	Ekonomia	Errenta aitortpena
21	03/21	Zortziko txikian	Errege Bardea
22	04/04	Zortziko txikian	EAEko Lehendakariak
23	04/09	Literatura unibertsala	Safo
24	04/11	Zortziko txikian	1766ko matxinada
25	04/16	Ekonomia	Ekonomia Sozial Eraldatzailea
26	04/18	Zortziko txikian	Zortzi datu geografiko bitxi
27	04/23	Literatura unibertsala	Cervantes
28	04/25	Zortziko txikian	Patata
29	04/30	Ekonomia	Enpresen gizarte-erantzukizuna
30	05/07	Literatura unibertsala	Homero
31	05/09	Zortziko txikian	Titiak
32	05/14	Ekonomia	Paradisu fiskalak
33	05/16	Zortziko txikian	Nafarroako jota
34	05/21	Literatura unibertsala	Dante
35	05/23	Zortziko txikian	Altzoko Erraldoia
36	05/28	Ekonomia	Defizitak eta kredituak
37	07/02	Zortziko txikian	EuskarAbentura
38	07/09	Zortziko txikian	Euskaldunak Frantziako tourean
39	07/25	Zortziko txikian	Olinpiar Jokoak
40	07/25	Zortziko txikian	Euskal Herriko piratak
41	08/15	Zortziko txikian	Bilboko Aste Nagusia
42	09/17	Euskal kultura	Euskal prentsaren bilakaera
43	09/19	Historia	Neolitoa
44	09/20	Zortziko txikian	Zinemaldia
45	09/24	Euskal kultura	Euskal zinemaren historia
46	09/26	Erronka digitalak	Identitatea
47	10/01	Euskal kultura	Lehen euskal pizkundea
48	10/03	Historia	Frantziako Iraultza
49	10/04	Zortziko txikian	Skateboard
50	10/08	Euskal kultura	Bigarren euskal pizkundea

#	Data	Saila	Bideoa
51	10/10	Erronka digitalak	Detox digitala
52	10/15	Euskal kultura	Euskarari ezarritako debekua
53	10/17	Historia	Erromatarrak euskal lurretan
54	10/18	Zortziko txikian	Arantzazuko santutegia
55	10/22	Filosofia	Judith Butler
56	10/24	Erronka digitalak	Artea eta Adimen Artifiziala
57	10/29	Euskal kultura	Euskara ingurune digitalean
58	10/31	Historia	Euskal baleazaleak
59	11/05	Filosofia	Byung-Chul Han
60	11/07	Erronka digitalak	Fake news
61	11/12	Euskal kultura	Euskal hezkuntza
62	11/14	Erronka digitalak	Euskararen mugak sarean
63	11/19	Filosofia	Miguel Unamuno
64	11/21	Historia	Iruñeko Erresuma
65	11/22	Zortziko txikian	Everest
66	11/26	Euskal kultura	Euskal arte plastikoak
67	11/28	Erronka digitalak	Interneten funtzionamendua
68	12/03	Euskal kultura	Euskara batuaren sorrera
69	12/05	Historia	Berlingo Harresia
70	12/10	Filosofia	Wittgenstein
71	12/12	Erronka digitalak	Ordenagailu kuantikoa
72	12/13	Zortziko txikian	Mari Domingi
73	12/17	Euskal kultura	Euskal antzerkigintza
74	12/19	Zortziko txikian	Euskal uharteak

Produkzioa

Argitaratu gabe daude, baina 2024an beste hainbat bideo ekoitzi dira. Hurrengo 4 hilabeteetan argitaratuko diren bideoak prest izaten saiatzen gara, makinaria martxan izan, eta ikasturteko logikan argitalpen plan anbiziotsu bat gauzatzeko. Hauek dira azken hilabeteetan sortu ditugun, eta urtariletik aurrera zabalduko diren bideoak:

Filosofia

- Ideia jakin batzuk barneratuta jaiotzen gara? | ENPIRISMOA
- Nola dakigu ez garela simulazio batean bizi? | ESZEPTIZISMO KARTESIARRA
- Arauak behar ditugu gizartean bizitzeko? | KONTRAKTUALISMOA
- Nola izan zoriontsu? | ESTOIZISMOA

Erronka digitalak

Eduki libreak: noiz eta nola erabili.

Literatura unibertsala

- William Shakespeare
- Mary Shelley
- Emily Brontë
- Anton Txekhov

Zortziko txikian

- Greziar mitologia
- Gazta
- Hiri kondairak
- Libertimendua
- Nafarroa Garaia
- Gipuzkoa
- Ramadan
- Dodo
- Big bang
- Zeus
- Bizkaia
- Dinosaurio
- Zuberoa
- Lapurdi
- Araba

Gure Arbasoak

- Eskaileratik zuhaitzera
- Denok gara Eneko Aristaren ondorengo
- Cro-Magnonak
- Neandertalak
- Gizateria osoa
- Zerk egiten gaitu gizaki?
- Zenbat gizaki espezie daude?
- Lucy
- Zergatik daude oraindik txinpantzeak?
- Gorilak al gara behelaino artean?
- Orangutanekin Asiara eta buelta
- Hylobateen kuadrila handia
- Isatsa galdu genueneko
- gure lehengusuak Ameriketara joan zirenekoa
- Amona, zergatik dituzu hain begi handiak?
- Madagaskar

Berritasunak

Literatura unibertsala

Aurrez zabalduko bideo-sailez gain, udaberrian harrera beroa izan duen bilduma berri bat abiatu dugu: Literatura unibertsala. Lau bideo argitaratu ditugu. Orain arte joratu gabeko formatua izan da; bi aurkezle izan ditu, euskarazko sareko ikus-entzunezkoetan erreferente diren Itziar Orbegozo eta Imanol Epelde; literaturaren dibulgazioan ari direnen kolaborazioak izan ditugu, edukiari bermea emateko; eta azkenik, autore bakoitzaren gaineko bideoei, autore ukituko animazioak gehitu dizkiogu. Horrez gain, ekoiztetxe berri batekin

egin dugu lan hau: Aranburu films-ekin. Proiektua dibertsifikatu eta bide berriak probatzeko asmoak bultzatu gaitu bidaide berriak aktibatzerara.

Historia

Udazkenean beste sail berri bat aurkeztu dugu. Urteetan su txikian egosi den asmo handiko sail bat: historia. Gai arantzatsua izan daiteke, eta ondo neurtu nahi genuen zer eta nola egin. Horretarako aliatu posible askorekin izan ostean, Bira ekoiztetxea batu zaigu abenturara. Bidaide aproposak dira, ikus-entzunezko ekoiztetxe bat izateaz gain, historialari bat dutelako lan taldean, eta kontu berezia dute gaiak aukeratu eta jorratzen. Sail honetan tonu zirtolariago bat erabiltzea erabaki da, aurkezlearen aurkeraketatik, gidoiko umorera, publiko berrietara heldu eta kortse akademiko zurrunetik estetikoki aldentzeko, dena den, bideo guztiak historia irakasle batek gainbegiratu ditu, bermea eta sareko narratiba informala batzea delako gure asmoa. Harrera beroa izan du sailak.

Gure Arbasoak

Urtarrilean sail berri bat aurkeztuko dugu: Galder Gonzalez-ek gidatzen duen sailean biologia hobeto ulertzeko, gugandik atzera egingo dugu, eboluzioaren zuhaitzaren bidez, espezie guztien oinarrian dagoena ezagutzera.

Komunikazioa

Bideo katalogo osoago batekin, aurtengoan komunikazioan pauso bat estutzeko urtea zela iritzi genuen. Horretarako, batez ere, lau ekimen jarri ditugu martxan.

Posterrak eta eskuorriak

Hezkuntzan oso erabilgarriak dira bideoak, eta askotan, ikasgelatik kanpo ikustekoak badira ere, gure hartzaille potentzial nagusia euskaraz ikasten ari den gaztea denez, EAEko ikastetxeetara posterrak eta eskuorriak helarazi genituen udazkenean.

Hiru sareetako ikastetxeetara bidali genituen, guztira 202 eskolatarara, 37.425 eskuorri eta 3.248 poster (lau ezberdin). Horrez gain gutun bat ere bidali genuen, proiektua azaldu eta posterrak eskolatan jartzeko eskatuz.

Lanbide Heziketako Hizkelan jardunaldian ere ekonomiako 300 poster banatu genituen: bertako parte-hartzaileak zentroetako euskara arduradunak dira, batez ere. Durangoko Azokako egunetan ere Landako gunean jarri genituen posterrak.



Egunean Behin

Beste urte batez Egunean Behineko babesleak izan ginen aste batez. Guztira, aste horretan, 42.480 pertsonak jokatu zuten, eta banerra 237.619 aldiz kargatu zen. Webguneko bisitak aste horretan 3.000ra iritsi ziren.

Babesletaz gain, urte osoko elkarlan gisa, Egunean Behineko galdera-sorta bat da Ikusgela. Bideoetan lantzen diren gaien gaineko galderak egiten dira aplikazioan. Guztira 300 galdera baino gehiago sortu ditugu dagoeneko.

DA!

Posterrak bertan jartzeaz gain, aurten bi aurkezpen egin ditugu Durangoko Azokan. Lehenik, Euskal Kulturaren gaineko bideoak Irudienean aurkeztu genituen ikasle goizean; harrera beroa izan zen. Bigarrenik, Erronka Digitalen gaineko bideoak erakutsi eta solasaldia antolatu genuen Kabia gunean, Landakoko areto nagusian.



Buletina

Sare sozialetako jarduna askotan azkarregi doa, eta zaila da egiten dugunaren ikuspegi orokorragoa izatea. Astero-astero bideoak jaso baino, noizbehinka katalogoan izan diren eguneraketen berri izan nahi duen hartzailearentzat buletin bat sortu dugu aurten. Asmoa 3 hilabeteetan behin tarte horretan sortu diren bideoak eta bestelako berriak emailez helaraztea da. [Ikusgela.eus/buletina-n](https://ikusgela.eus/buletina-n) egin daiteke harpidetza, eta lehen hilabeteetan harrera beroa izan du.

Sariak

2024ko azaroaren amaieran heldu zen poza: Ikusgelak Rikardo Arregi Kazetaritza Sarietako Komunikazio garaikurra jaso zuen Andoainen. Aitortza ederra izan da lehen 2 urteotako lanari.

Horrez gain, astebetera Espainiako Youtubek antolatzen duen DigitalizArte ekimenak ere saritu zuen Ikusgela. Kasu horretan, saria bideo laburren formatuari eman zioten, Zortziko Txikian sailari. Guztira 8.000 lan aztertu zituzten epai-mahaiekoek, eta Ikusgela saritzea erabaki zuten, Madrilan antolatutako sari banaketan. Bertan izan ziren politikariak, eduki sortzaile famatuak eta Youtubeko Europako arduradunak.



Wikipedian presentzia

456 artikuluk daukate Ikusgelako bideoen bat. Orrialde guzti horiek azken 12 hilabetetan 503.369 bisita izan dituzte, eguneko bisita batez beste 1.418 da.

Zenbakiak

Urte emankorra izan da 2024a. Guztira 74 bideo argitaratu ditugu, zortzi sail ezberdinetan banatuta, horietako bi berriak: Literatura unibertsala eta historia. Guztiak batuta, 348 minutu eduki berri sortu ditugu, ia sei ordu, eta 2.514 irudi libre erabili ditugu horretarako.

Orain arte argitaratutako bideo guztiak 124 dira eta 332 azpititulu pilatzen dituzte. Sei bideo bikoiztuta daude dagoeneko.

Wikipedian 456 orrialde daude dagoeneko Ikusgelako bideo batekin, orrialde horietako edukia 503.369 aldiz kargatu da urte betean.

Youtuben ia 2.000 harpidedunen langa gainditu dugu, urtean zehar 737 gehiago gehitu dira. Aurtengo bideoek, guztira, 75 iruzkin jaso dituzte, 1.163 atsegin dut, eta 1.968 aldiz partekatuak izan dira. Bideo guztiak pilatuta, 111.629 ikustaldi izan dira bertan, 5.269 ordu euskarazko edukiak ikusten.

Aurrera begirakoak

Proiektuak gorputza hartu du aurrean. 124 bideoko bilduma dugu orain, alde batetik, bideo berriak ekoitzi, elkarlan berriak sustatu eta martxan dauden sailen kalitatez eustea tokatzen da; baina beste alde batetik, dagoena ondo komunikatu eta zabaltzea da indartu beharreko gauzatariko bat.

Sail berriei dagokionez, 2024ko udazkenean urteetako lana eskatu digun saila aurkeztu dugu: Historia. Datorren urtean aurkeztu nahi ditugun beste bi sail ere labeen ditugu: *Gure Arbasoak* eta *Zergatik gertatzen dira gauzak?*

Rikardo Arregi Kazetaritza Sarietako Komunikazio sariak indarra eman digu, baina aldi berean, aurreko urteetan lortu izan dugun EIMAKo laguntzaren zati handi bat galdu dugu, eta proiektua kolokan dago. Urtez urte prezioak gora doaz, maila mantendu nahi dugu, eta horren baliabide gutxirekin oso zaila da proiektuak eskatzen duen indarra bermatzea. Finantziarioa bermatzea eta duintzea izango da 2025eko erronketako bat.

Aurrera begira jarrita, Ikusgelak ehundaka bideo izan beharko lituzke, gero eta sail gehiago eta ezberdinagotan banatuta. Euskarazko ikus-entzunezko pedagogiko libreen erreferente bilakatu da dagoeneko, baina beharrei begira jartzean dena egiteko dagoela ikusten dugu. Euskarak leiho hori ere merezi du, segi dezagun horretan.



EUSKAL
WIKILARIEN
KULTURA ELKARTEA